



# **GOBERNU BILERA**

## **Prentsa-Txostena Gai nagusiak**

# **CONSEJO DE GOBIERNO**

## **Dossier de Prensa Asuntos destacados**

**Vitoria-Gasteiz, 2017ko urriak 17**

**Vitoria-Gasteiz, 17 de octubre de 2017**

## Lehendakaritza

### **GOBERNUAK 200.000 EUROKO LAGUNTZA ONARTU DU, BULGARIAKO HARRERA ESPARRUETAKO ADINGABE ERREFUXIATUEN BEHARRAK ASETZEKO**

Unicefi laguntza zuzen bat ematea onartu du gaur Gobernu Kontseiluak. Bere xedea da Bulgariako harrera esparruetan babesa hartu edo nazioarteko babesa eskatu duten adingabe migratzaileen behar larriei erantzutea, ondoan seniderik ez duten horienak bereziki. Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiaren bitartez emango da diru-laguntza eta bere zenbatekoa 200.000 eurokoa da.

Siriako gatazka orain dela 6 urte hasi zenetik, Bulgariara (EBko kanpo muga) iritsi diren errefuxiatuen kopuruak nabarmen egin du gora. Herrialde hori jomugatzat hartzen ez badute ere, indarkeriatik ihesi eta babes bila datozen pertsona askok hilabeteak ematen dituzte bertan, nazioarteko babesa lortzeko beren eskarien ebazpenaren zain edo beren bidaia arriskutsua Europan zehar jarraitzeko aukerarik ez dutelako.

Testuinguru horretan, adingabeek talde handia osatzen dute errefuxiatuen eta migratzaileen artean. 2016. urtean eskaria egin zutenen artetik, heren bat baino gehiago adingabeak ziren eta horien erdiak ez zuen seniderik ondoan; horrenbestez, egoera oso zaurgarrian aurkitzen ziren indarkeria eta gehiegikerien aurrean. 2016. urtean, 6.444 adingabeen artetik, 2.768k ez zuen seniderik ondoan eta bostetik batek 14 urte baino gutxiago zituen.

Bulgariak asilo-prozedura eta harrera-baldintzak hobetu baditu ere, Estatuak ez die beharrezko zerbitzuak bermatzen emakume eta adingabeei. Adingabeek, gainera, peril larriak pairatzeko arriskuan daude, uneoro, bidaian zehar eta indarkeria fisiko eta sexualaren, esplotazioaren, trafikoaren eta gehiegikerien biktima dira askotan, Europara iritsi aurretik, bai eta ostean ere. Eta arrisku hori are handiagoa da ere ondoan seniderik ez duten adingabeen kasuan.

Egoera horren aurrean eta Unicef-Bulgariak egin duen larrialdi-deialdiari erantzunez, aipatu nazioarteko erakundeari 200.000 euroko laguntza zuzena ematea onartu du gaur Gobernu Kontseiluak. Horren xedea da laguntza-zerbitzuak eskaintzea 4 harrera-esparrutan dauden familia eta adingabeei (ondoan seniderik ez dutenei bereziki), bai eta beren eskubideei inguruko aholkularitza eta laguntza juridikoa ere.

Euskal laguntzak adingabeen eskubideak babesteko xedearekin lan egiten dutenen gaitasuna sendotzea ahalbidetuko du ere.

## Gobernantza Publikoa eta Autogobernua

### GOBERNUAK 2012KO APARTEKO PAGAREN AZKEN LAURDENA ORDAINDUKO DU ETA, HORRELA, BEHIN BETIKO AMAITU ESPAINIAKO GOBERNUAK, DUELA 5 URTE, HASITAKO GATAZKAREKIN

- **Gobernu Kontseiluak lege-proiektua onetsi du; lege-proiektuaren bidez, Eusko Legebiltzarrak berretsi ondoren, azaroko nominan ia 50 milioi euro ordaindu ahalko dira**
- **Neurri horrek Euskal Administrazio Publikoan lan egiten duten ia 70.000 pertsonarengan du eragin; 2018tik aurrera, aparteko pagak kobratuko dituzte, ekainean eta abenduan, ohi bezala**

Gobernu Kontseiluak, gaur, *2017 ekitaldirako Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorrak onesten dituen Legearen aldatetari buruzko Lege Proiektua* onetsi du. Araudi-testu laburra da, artikulatu bakarrekoa; horren bidez, aurten 2012ko abenduko aparteko pagaren azken laurdena ordainduko da, kontuan hartuta aparteko paga hori Espainiako Gobernuaren oinarritzko araudiak kentzeko ezarri zuela.

Orain, Eusko Jaurlaritzak Eusko Legebiltzarrari bidaliko dio lege-proiektua, ahalik eta lasterren onesteko; horrela, azaroan, kopuru hori ordain dakieke Euskal Administrazio Publikoan lan egiten duten langileei.

Neurri horrek, aurrekontuan, 50 milioi euro inguruko eragina izango du. 2012ko uztailaren 1aren eta 2012ko abenduaren 31ren artean Euskal Administrazio Publikoan zerbitzuak eman zituzten pertsona guztiengan du eragina. 70.000 langile inguru dira. Dagoeneko aktibo ez daudenek modu berean eta ofizioz jasoko dute dagokien zenbatekoa, eta ez dute horretarako zenbatekoa erreklamatu behar izango.

Azken ordainketa hori eginda, Eusko Jaurlaritzak behin betiko itxiko du Espainiako Gobernuak, duela bi legegintzaldi, langile publikoekin hasitako gatazka, *uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege Dekretua, Aurrekontu-egonkortasuna bermatzeko eta lehiakortasuna bultzatzeko neurriei buruzkoa*, onetsi zuenean.

### 2018KO APARTEKO PAGAK

Gaur hartu den neurri honen bidez, 2018an normaltasunera bueltatuko da langile publikoen aparteko pagen ordainketa. Datorren urtetik aurrera, berriz ere likidatuko dira ekainean eta abenduan.

## Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak

### HAZITEK 2017 PROGRAMAREN DEIALDIA: 82.800.000 EURO EUSKAL ENPRESAREN I+G JARDUERA SUSTATZEKO

- Eusko Jaurlearitzak % 21,8 areagotu ditu proiektu estrategikoetarako eta enpresa-proiektuetarako Hazitek programaren I+Gko laguntzak
- 2016an, Hazitekek 734 proiektu bultzatu zituen eta enpresen % 67k lortu zuen fakturazioa areagotzea, proiektu horiei esker
- 2016ko Haziteken bidez, 3,7 biderkatu zen I+Gko amaierako inbertsioa, enpresa pribatuen mobilizatuiei esker
- Teknologiaren arloko I+Gko programak 171,3 M eurora iritsiko dira 2017an. Hazitekez gainera, Emaitek +, Elkartek eta Berrikertu programak ere sustatzen dira, ZTBESko eragileentzat

Gobernu Kontseiluak enpresen I+Gri laguntzeko HAZITEK 2017 programaren deialdiaren bigarren fasea onartu du. Guztira, 82.800.000 euro aurreikusten ditu, ondokoei laguntzeko:

- Enpresei (enpresa handi eta ETE).
- Enpresa talde eta elkarteei.
- Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarean sarturiko Zientzia-Teknologia eragileei. (OTEbak sortzeko I+Gko lehiatzeko proiektuentzat).

Deialdiko 82.800.000 euroko guztizko kopuru horretatik, 40.800.000 euro lehiatzeko proiektuak finantzatzera bideratuko dira eta 42.000.000 euro izaera estrategikoko proiektuak finantzatzera.

2016ko deialdia 68.000.000 eurokoa izan zen; beraz, % 21,8 areagotu da, 2016aren aldean. Finantzaketa publikoaren bidez enpresako I+G sustatzeko ahalegin handiago eta esanguratsu hori Lehendakaritzaren Berrikuntza Funtsetik RIS3ko arloen artean dauden interes-eremu partekatuetan Lankidetzako Proiektu Traktoreei ematen zaien bultzadaren ondorio da.

Nabarmendu behar da Hazitek programa enpresa-izaerakoa dela, bereziki; izan ere, gainerakoak, nahiz eta merkatuko ikuspegia ere izan (Emaitek, Elkartek eta Berrikertu), Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko (zentro teknologikoak eta IKZ-k, nagusiki) eragileen I+Gren sustapenean daude zentratuago, bai eta ikertzaileen sustapenean ere. Teknologia alorreko I+G-erako bideratuko diren programen diru laguntza 2017 urtean guztira 171,3 M eurokoa izango da.

## Hazitek 2016 programaren ebaluazioa

- Haziteken 2016ko deialdiaren bidez, **734 enpresari eman zitzaien laguntza, guztira, Euskadin I+G egiten duten enpresen % 46ri**; enpresa txikiak dira kolektibo handiena, onuradunen kopuruaren arabera (% 51)
- Enpresa-programen kasuan, jasotako diru-laguntzako 1 € bakoitzeko, enpresa onuradunek 2,7€ inbertitzen dituzte; beraz, **enpresa-programetan aurrekontu mobilizatua diru-laguntzen zenbatekoa halako 3,7 da**. Hau da, 2016ko deialdiko 68 M euroek 252.183.837 €-ko inbertsioa mobilizatu zuten enpresa-arloko I+G jardueran.
- **Enpresen % 67k lortu du fakturazioa areagotzea**, EJren laguntza jaso duten I+G proiektuen ondorioz, eta fakturazioan izandako eragina sarrigo gertatu da NETs programan parte hartu duten enpresetan (% 78) eta proiektuak Energiaren lehentasunean garatu dituztenetan (% 79).
- 2016ko deialdietan abiatutako I+G **jardueren % 97 (ZTBES + enpresak) bost arlotan** kontzentratzen da: ekoizpen eta teknologia industrial; energiaren ekoizpena, banaketa eta erabilera; garraioa, telekomunikazioak eta beste azpiegitura batzuk; giza osasunaren babesa eta hobekuntza; eta ingurumenaren kontrola eta zaintza.
- **Fabrikazio Aurreratuko RIS3** lehentasuna gehiengoa da aurrekontuari dagokionez programa guztietan, eta ematen den **diru-laguntza osoaren % 57 hartzen du**.

### *Proiektuen balioespena bi fasetan*

HAZITEK programaren lehen urtea igarota, eta bere funtzionamendu operatiboa eta ezarritako estrategiarekiko egokitzea optimizatzeko helburuarekin, aldaketak egin dira programa sendotzeko.

Xedea da ikusitako behar bati erantzutea: babestutako I+G proiektuetan bilatutako trakzio-eragina benetan sortuko luketen epeen barruan ebatsi ahal izatea laguntza programak.

Horren ondorioz, bi fase ezberdinetan banatu da programa: proiektuak aukeratzekoa bata, aurrekontu-kudeaketarengandik berezia, aipatuen aurkezpena eta ebaluazio tekniko hartuko dituen eta onartutako proiektuen hautaketa eta jakinarazpenarekin amaituko dena. Eta, bestea, laguntzak emateko fasea, zeinak hautatuak izan eta programaren baldintza guztiak betetzen dituzten proiektuen diru-laguntza ebatsiko duen.

Honela, onartutako proiektuen jakinarazpena aurreratu zaie onuradunei, proiektuen exekuzio-epearen hasierara bai eta abiaraztearen aurretiko egunetara ere, bilatutako sustapen-eragina lortuz proiektuetan eta beren plangintza hobetzen lagunduz ere.

Interesdunek, azaroaren 2ra arte dute dokumentazioa aurkezteko aukera, jarraian adierazten den egoitza elektronikoaren bidez:

<http://www.industria.ejgv.euskadi.eus/r44-teletram/es/> (gazteleraz)

<http://www.industria.ejgv.euskadi.eus/r44-teletram/eu/> (euskaraz)

## Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak

### EUSKADIKO ENPRESA POLIGONOTAN BELAUNALDI BERRIKO BANDA ZABALEKO SAREAK 16 HILABETETAN ZABALTZEKO LAGUNTZAK

- PEBA ekimenaren bigarren fase honetan 146 enpre guneetan hedatuko da non 1.132 enpresa dauden kokatuta eta 20.575 langile aritzen diren
- PEBA ekimenaren bi faseekin, banda zabala ultra azakarra 371 enpresa gunetan hedatuko da, Euskadiko “gune zuri” diren %93 ordezkatzeko duena

Jaurlaritzak onartu du 2017. ekitaldirako Euskadiko enpresa-poligonotan belaunaldi berriko banda zabaleko sareak zabaltzeko laguntzen programaren deialdiari lotutako ebazpena. Ekimena Eusko Jaurlaritzaren eta Foru Aldundien arteko lankidetzaren bitartez gauzatuko da.

Helburua honako hau da: ekonomia-jarduerak —ahal izanez gero industriari lotuak— burutzen diren edo burutzeko aurreikusten diren eta “NGA gune zuri” gisa sailkatuta dauden Euskadiko zona geografikotan banda zabal ultralasterreko sareak zabaltzeko laguntzak ematea. “NGA gune zuriak” dira NGA Banda Zabaleko baldintzetan Interneten sartzeko zerbitzuak ahalbidetzen dituen telekomunikazioen azpiegiturarik ez duten eta datozen 3 urteetan aurreikusten ez diren zonak.

Deialdi honetan aurreikusitako diru-laguntzen onuradunak izango dira behar bezala gaituta operadore izaera duten sektore pribatuko pertsona fisikoak edo juridikoak.

2017ko edizioan, 7.977.068,10 euroko laguntza bideratuko da 146 poligonoetan (ikus eranskina) aurkeztutako proiektuak gauzatzeko. Bertan, 1.132 enpresa daude kokatuta non 20.575 langile aritzen diren. Proiektua gauzatzeko gehienez 16 hilabeteko epea emango da, Akordio hau jakinarazten den egunetik kontatzen hasita. Eta hura arautzen duen Aginduan finkatutako baldintzak betez gero, epea hemezortzi hilabetetara luza daiteke

Honako laguntzak aurreko 2016 urtean Jaurlaritzak eta Aldundiek bideratutakoei gehitu dira. Aurreko deialdiari esker 225 enpresa poligonoetan hedatu zen, non 3.346 enpresa aritzen diren 48.214 langilerekin.

Gauzak horrela, bi deialdietako neurriak batuz gero, 15 milioi euroko laguntzak bideratu dira Euskadiko 371 enpresa poligonoetako konektibitatea hobetzeko Euskadiko eta Europako Agenda Digitalen bidea jarraitzeko eta 4.0 Industria berriaren beharrei erantzun ahal izateko.

Sociedad para la Transformación Competitiva / Eraldaketa Lehiakorrerako Sozietatea, SAK (SPRI), arautzeko Aginduaren erakunde laguntzaile gisa, Banda Zabalaren Behatokiaren zerbitzu berria jarri du martxan. Honen bitartez, Euskadiko gune guztietako konektibitate maila kontutan izango duen eta gune bakoitzean beharrezkoak diren egin beharrak aurreikusiko dituen.

### ERANSKINA

POLIGKOD	LH	Udalerrria	Her_Uni
01AYALAMADURA	Araba/Álava	Alegría-Dulantzi	Alegría-Dulantzi
01LURGORRI	Araba/Álava	Alegría-Dulantzi	Alegría-Dulantzi
01USATEGI	Araba/Álava	Alegría-Dulantzi	Alegría-Dulantzi
01AMENABAR	Araba/Álava	Aramaio	Olaeta/Barreiatua
01BARRATAGUREN	Araba/Álava	Artziniega	Artziniega
01URETA	Araba/Álava	Artziniega	Artziniega
01AVINORSA	Araba/Álava	Armiñón	Armiñón/Barreiatua
01ASPARRENA	Araba/Álava	Asparrena	Araia/Barreiatua
01TARIMAS	Araba/Álava	Berantevilla	Lacorzanilla/Barreiatua
01BIOMENDI	Araba/Álava	Bernedo	Bernedo
01GAZETA	Araba/Álava	Elburgo/Burgelu	Gazeta
01BODEGAS	Araba/Álava	Elciego	Elciego
01BODEGAS1	Araba/Álava	Elciego	Elciego/Barreiatua
01LAGUARDIA1	Araba/Álava	Laguardia	Laguardia
01LAGUARDIA2	Araba/Álava	Laguardia	Laguardia
01LAGUARDIA3	Araba/Álava	Laguardia	Laguardia
01VALECILLA	Araba/Álava	Laguardia	Laguardia/Barreiatua
01CASABLANCA	Araba/Álava	Laguardia	Laserna/Barreiatua
01LAPUEBLA	Araba/Álava	Lapuebla de Labarca	Lapuebla de Labarca
01MAEZTU	Araba/Álava	Arria-Maeztu	Maestu/Barreiatua
01OKONDO	Araba/Álava	Okondo	Zudiviarte/Barreiatua
01OIONURBANO	Araba/Álava	Oion	Oyón-Oion
01AGRARIA	Araba/Álava	Ribera Baja/Erribera Beitia	Rivabellosa
01ARASUR-ANEXO	Araba/Álava	Ribera Baja/Erribera Beitia	Rivabellosa
01EL_VENTORRO	Araba/Álava	San Millán/Donemiliaga	Durruma/San Román de San Millán
01OKITURRI	Araba/Álava	San Millán/Donemiliaga	Durruma/San Román de San Millán
01IZARRA	Araba/Álava	Urkabustaiz	Izarra
01TUESTA	Araba/Álava	Valdegovía/Gaubea	Tuesta/Barreiatua
01BODEGAS4	Araba/Álava	Villabuena de Álava/Eskuernaga	Villabuena de Alava/Eskuernaga
01CONDESA	Araba/Álava	Legutio	Goiaín/Barreiatua
01LLADIE	Araba/Álava	Legutio	Goiaín/Barreiatua



01ISLARRA	Araba/Álava	Zuia	Altube/Barreiatua
01MURGIA	Araba/Álava	Zuia	Murgia
01OLABARRI	Araba/Álava	Iruña Oka/Iruña de Oca	Olabarri/Barreiatua
01TRESPUENTES	Araba/Álava	Iruña Oka/Iruña de Oca	Trespuentes/Barreiatua
01ZUBILLAGA	Araba/Álava	Lantarón	Zubillaga
20_TXARAMA NORTE	Gipuzkoa	Altzo	Altzo/Barreiatua
20_TXARAMA SUR	Gipuzkoa	Altzo	Altzo/Barreiatua
20_IBARRETA (ANTZUOLA)	Gipuzkoa	Antzuola	Antzuola/Barreiatua
20_ISUSES	Gipuzkoa	Arama	Arama/Barreiatua
20_ORKLI	Gipuzkoa	Arama	Arama/Barreiatua
20_AIU 1 ZUBIKOETA	Gipuzkoa	Ataun	San Martin/Barreiatua
20_II.2 ANDATZA-SAN PEDRO	Gipuzkoa	Aia	Andatza/Barreiatua
20_I.19 SANTIO ERREKA	Gipuzkoa	Aia	Santio Erreka/Barreiatua
20_II.4 ARANGUREN	Gipuzkoa	Aia	Santio Erreka/Barreiatua
20_A.I.U. 7 (POL. BENTA)_8	Gipuzkoa	Belauntza	Belauntza/Barreiatua
20_A.I.U. 9 (BEOTIBAR)	Gipuzkoa	Belauntza	Belauntza/Barreiatua
20A.I.O.10	Gipuzkoa	Belauntza	Belauntza/Barreiatua
20_AIU 10 SARRIO	Gipuzkoa	Berrobi	Berrobi/Barreiatua
20_AIU 15 ELBARREN	Gipuzkoa	Bidegoian	Bidania/Barreiatua
20_POLIGONO ITZIAR	Gipuzkoa	Deba	Itziar/Barreiatua
20_JALOTZA	Gipuzkoa	Elgeta	Elgeta/Barreiatua
20_PAGATZA	Gipuzkoa	Elgeta	Elgeta/Barreiatua
20_POL. BERRAONDOKUA	Gipuzkoa	Elgeta	Elgeta/Barreiatua
20_URRUTI	Gipuzkoa	Gabiria	Alegia/Barreiatua
20_UNE ORIA	Gipuzkoa	Gabiria	Gabiria/Barreiatua
20_EDERSAL	Gipuzkoa	Gabiria	Gabiria/Barreiatua
20_PORTUKO INDUSTRIALDEA	Gipuzkoa	Getaria	Getaria
20_TXORI-TONPE INDUSTRIALDEA	Gipuzkoa	Getaria	Getaria
20_IGARATEGI INDUSTRIALDEA	Gipuzkoa	Getaria	San Prudentzio/Barreiatua
20_ERROTA	Gipuzkoa	Idiazabal	Idiazabal/Barreiatua
20_JASO (IDIAZABAL)	Gipuzkoa	Idiazabal	Idiazabal/Barreiatua
20_FAGOR- GARAGARTZA	Gipuzkoa	Arrasate/Mondragón	Garagartza/Barreiatua
20_KOBATE	Gipuzkoa	Arrasate/Mondragón	Garagartza/Barreiatua
20_MEATZERREKA	Gipuzkoa	Arrasate/Mondragón	Meatzerreka/Barreiatua
20_POL. ANTZOMENDI (GALDONA)	Gipuzkoa	Mutriku	Galdona/Barreiatua

20_MIJOA U.E.3 TXIRRITXA	Gipuzkoa	Mutriku	Mijoa/Barreiatua
20_11. OXIMEK	Gipuzkoa	Ormaiztegi	Ormaiztegi/Barreiatua
20_12. IRIZAR	Gipuzkoa	Ormaiztegi	Ormaiztegi/Barreiatua
20_13. PEYDESA	Gipuzkoa	Ormaiztegi	Ormaiztegi/Barreiatua
20_A.46 ALTZIBAR	Gipuzkoa	Oartzun	Altzibar/Barreiatua
20_EGILUZE	Gipuzkoa	Errenteria	Errenteria/Barreiatua
20_AL.18 PAPIN	Gipuzkoa	Donostia / San Sebastián	Donostia / San Sebastián
20_ALDABA - BERAZUBI – HAUNDI	Gipuzkoa	Tolosa	Aldaba/Barreiatua
20_AIU. 24 ITURBE	Gipuzkoa	Urnieta	Urnieta/Barreiatua
20_A. 86	Gipuzkoa	Usurbil	Aginaga/Barreiatua
20_OSINTXU	Gipuzkoa	Bergara	Osintxu/Barreiatua
20_OLA	Gipuzkoa	Bergara	Elorregi/Barreiatua
20_UBERA	Gipuzkoa	Bergara	Ubera/Barreiatua
20_LABEGARAIETA	Gipuzkoa	Bergara	Bergara
20_A-1_URRETXU	Gipuzkoa	Urretxu	Urretxu
20_A-2	Gipuzkoa	Urretxu	Urretxu
20ACERIA	Gipuzkoa	Urretxu	Urretxu
20_ERRATZU	Gipuzkoa	Urretxu	Urretxu/Barreiatua
20_OLAETA	Gipuzkoa	Zaldibia	Zaldibia/Barreiatua
20_URTETA	Gipuzkoa	Zarautz	Zarautz
48_BURDINOLA	Bizkaia	Amoroto	Ugaran/Barreiatua
48UGARRIZA	Bizkaia	Arakaldo	Arakaldo/Barreiatua
48_ZELAIA	Bizkaia	Arantzazu	Zelaia
48_ARBIDE	Bizkaia	Arrankudiaga	Arene/Barreiatua
48_REZOLA	Bizkaia	Arrigorriaga	Arrigorriaga/Barreiatua
48MARTIARTUII	Bizkaia	Arrigorriaga	Martiartu/Barreiatua
48_ARTZALDE	Bizkaia	Bakio	Artzalde/Barreiatua
48_GARDOTZA	Bizkaia	Berriatua	Asterrika/Barreiatua
48_OLASO	Bizkaia	Berriatua	Magdalena/Barreiatua
48_TREBOL	Bizkaia	Busturia	Altamira-San Kristobal
48AMBASAGUAS	Bizkaia	Karrantza Harana/Valle de Carranza	Ambasaguas
48_ALTZA	Bizkaia	Etxebarria	Altzaa/Barreiatua
48_GALARTZA	Bizkaia	Etxebarria	Galartza/Barreiatua
48_LA ACEÑA	Bizkaia	Galdames	La Aceña/Barreiatua
48_GATIKA	Bizkaia	Gatika	Ugarte/Barreiatua
48_PADURA	Bizkaia	Güeñes	Sodupe
48AMUNAGA	Bizkaia	Gernika-Lumo	Arana
48_DANOBAT	Bizkaia	Ispaster	Ispaster-Elexalde
48_BASOKOETXE	Bizkaia	Ispaster	Ispaster-Elexalde
48_ARBIZOLA	Bizkaia	Izurtza	Izurza/Barreiatua
48_ORTUZAR	Bizkaia	Izurtza	Izurza/Barreiatua

48_SATURNINO	Bizkaia	Izurtza	Izurza/Barreiatua
48_U. E. SASIKOLA	Bizkaia	Izurtza	Izurza/Barreiatua
48_MADERAS LEKUE	Bizkaia	Larrabetzu	Uria
48SARRIKOLA	Bizkaia	Larrabetzu	Uria
48_BEITIA	Bizkaia	Larrabetzu	Larrabetzu/Barreiatua
48ALDEBARRENA	Bizkaia	Mañaria	Mañaria/Barreiatua
48_31. DENTICI	Bizkaia	Markina-Xemein	Markina-Xemein
48_32. BARINAGA	Bizkaia	Markina-Xemein	Markina-Xemein
48_34. ESPERANZA	Bizkaia	Markina-Xemein	Markina-Xemein
48_33. OTOLA	Bizkaia	Markina-Xemein	Markina-Xemein/Barreiatua
48_35. URLO	Bizkaia	Markina-Xemein	Markina-Xemein/Barreiatua
48_37. ERDOZA	Bizkaia	Markina-Xemein	Markina-Xemein/Barreiatua
48MUXIKA	Bizkaia	Muxika	San Roman/Barreiatua
48_SAUÍ AGERRE- UNTXETA	Bizkaia	Muxika	Ugarte/Barreiatua
48_FERGOPLAST	Bizkaia	Muskiz	San Juan de Muskiz
48_SAN ANTONIO	Bizkaia	Otxandio	Otxandio
48VICINAY	Bizkaia	Otxandio	Otxandio
48_ZELAIETA	Bizkaia	Otxandio	Otxandio/Barreiatua
48RENERIA	Bizkaia	Ondarroa	Ondarroa/Barreiatua
48_UKERRIA	Bizkaia	Urduña/Orduña	Orduña/Barreiatua
48_ZUBIAUR	Bizkaia	Orozko	Bengoetxea
48_TORREZAR	Bizkaia	Orozko	Murueta/Barreiatua
48_EL ARENAO	Bizkaia	Sopuerta	El Arenao
48_LA SOTA	Bizkaia	Sopuerta	Las Ribas
48_IGELTZERA	Bizkaia	Urduliz	La Campa/Barreiatua
48_LABETXE	Bizkaia	Urduliz	Mendiondo/Barreiatua
48ARLA	Bizkaia	Balmaseda	Peñueco/Barreiatua
48MARKOIDA	Bizkaia	Atxondo	Apatamonasterio
48BASAUNTZ	Bizkaia	Igorre	Basauntz/Barreiatua
48_SAN JUAN	Bizkaia	Igorre	San Juan
48URKIZU	Bizkaia	Igorre	Urkizu/Barreiatua
48OKANGO	Bizkaia	Zaldibar	Gazaga
48_NOCEDAL	Bizkaia	Zalla	La Herrera/Barreiatua
48_NEINVER	Bizkaia	Derio	San Antolin/Barreiatua
48_POLÍGONO INDUSTRIAL AEROPUERTO	Bizkaia	Derio	San Esteban/Barreiatua
48_ÁREA TERCIARIA HOSPITAL QUIRÓN	Bizkaia	Erandio	Goiherri/Barreiatua
48_FATIMA	Bizkaia	Erandio	Lutxana-Enekuri/Barreiatua
48_S.U.I. MURUETA	Bizkaia	Murueta	Murueta/Barreiatua
48_NABARNIZKO INDUSTRIALDEA	Bizkaia	Nabarniz	Elexalde

## Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak

### EUSKO JAURLARITZAK 1,5 MILIOI EURO BAINO GEHIAGO BIDERATU DU NEKAZARITZA ETA ARRANTZAREN ETA ELIKAGAIGINTZAREN SEKTOREETAKO GAZTE IKERTZAILEEN BEKAK FINANTZATZEKO

- Nekazaritzako elikagaien balio kate osoan etorkizuneko profesionalak trebatzea eta I+G+B-a sustatzea dira PEGA Gastronomiaren eta Elikaduraren Planaren ardatzetako batzuk
- Helburua da gazteei laguntzea lehen sektore modernoagoan eta lehiakoragoan sartzen

2018an Prestakuntzan dauden Ikertzaileen Programako gazteentzako hamabi beka (doktoretza aurrekoak) eta nekazaritza eta arrantza sektoreko eta elikagaien sektoreko ingurune zientifiko-teknologikoan eta enpresakoan Teknologoen Prestakuntzarako Programako hamar beka deitzeko Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuak eman duen agindua onartu du Eusko Jaurlaritzak bere azken bileran. 2022ra arte, 1.354.450 euro egongo dira berez beka direnetarako eta 200.000 euro inguru Gizarte Segurantzari atxikitzeko. 2007an eman ziren lehenengo aldiz beka hauek, eta harrez gero 83 beka finantzatu dira guztira gazte ikertzaileentzat eta 114 gazte teknologentzat.

Nekazaritzako elikagaien industriako balio kate osoan etorkizuneko profesionalak prestatzen jarraitzeko eta I+G+B jarduera bultzatzeko Eusko Jaurlaritzak irmoki garatzen ari den politikaren barruan sartzen dira, lehen sektore modernoagoa eta lehiakoragoa lortzeko jarduera estrategikotzat jotzen baita. Hala jasotzen da Eusko Jaurlaritzak berriki onartu duen Gastronomiaren eta Elikaduraren Plan Estrategikoan (PEGA), zeinak helburu nabarmen hauek ditu, besteak beste: sektoreari jauzi kualitatiboa egiten laguntzea, merkatu globalean dituen berrikuntza eta kalitate ezaugarriak baititu, eta Elikaduraren balio katearen agente guztiak oro har lehiakoragoak izatea lortzea berrikuntzaren bitartez, ezagutza berriak barneratuz eta agente guztien lankidetzaren bitartez.

Era berean, laguntza hauek estuki loturik daude Eusko Jaurlaritzak XI. Legegintzaldirako finkatutako Herrialdearen Helburuetako batzuekin, hala nola hauekin: langabezia %10etik behera jaitea eta gutxienez 20.000 gaztek lehen lan esperientzia eduki dezatela lortzea.

### Helburu orokorra

Hitz batean, asmoa da zentro teknologikoetan eta ikerketa zentroetan nagusiki ikerketa jarduerak eta garapen teknologikoko jarduerak egiten arituko diren zientzialarien trebakuntza lortzea, sektorerako interes handienekotzat jotzen diren eta etorkizunari begira proiektzioa daukaten lehentasunezko lerroetan

ikerketa taldeak sendotzeko dagoen premiari erantzuten saiatuta. Horrekin, gainera, asmoa da Doktore gradua lortzen duten pertsonak gehiago izatea.

Era berean, bilatzen da teknologoen trebakuntza sektoreko enpresetan, nagusiki garapen teknologikoko eta enpresa berrikuntzako arloetan.

### **Proiektuak eta helmugako zentroak**

Laguntzen onuradun diren pertsonak sektorean erreferenteak diren ikerketa zentroetan sartuko dira, hala nola NEIKERen, AZTIIn eta LEARTIKERen. Beketako batzuk, halaber, EHU/UPVko zentro batzuetan garatuko dira.

Proiektu guztiek harreman estua dute elikaduraren balio katearen kate maila batzuekin, bai ekoizpenarekin (izurrien kontrol agroekologikoa) bai gastronomiarekin (elikagaien berrien diseinua eta garapena).

### **Iraupena eta zenbatekoa**

Prestatzen ari diren ikertzaileentzako laguntzen kasuan, kontratuaren iraupena urtebetekoa izango da, eta luzatzeko aukera egongo da, urtetik urtera. Hasierako kontratua eta luzapen guztiak batuta, iraupena ezingo da lau urte baino gehiagokoa izan. Prestatzen ari diren teknologoen trebakuntza programarako laguntzei dagokienez, Dekretuak aurreikusten du laguntzak urte baterako izan daitezkeela edo segidako bi urtetarako; halere, kasu honetan laguntza guztiak bi urterako ematen dira.

Laguntzen zenbatekoei dagokienez, prestatzen ari diren ikertzaileek (doktoretza aurreko bekak) 18.574 euro eskuratuko dituzte lehen eta bigarren urtean, 19.833 euro hirugarren urtean, eta 24.555 euro laugarrenean. Onuradunek, gainera, laguntza osagarri bat edukiko dute. Laguntza osagarri horren zenbatekoa ez da 2.000 eurokoa baino handiagoa izango urteko, eta doktoretza kurtsoetan matrikulazio gastuak ordaintzeko, kongresu zientifikoetara eta lan jardunaldietara joateko, beste ikerketa zentro bazuetan egonaldi laburrak egiteko edo beste kurtso batzuk egiteko erabiliko da, esaterako.

Teknologoen prestakuntzarako laguntzei dagokienez, urtero 13.000 €-z hornituko dira, gehi Gizarte Segurantzako kuota. Onuradunek, gainera, laguntza osagarri bat edukiko dute. Laguntza osagarri horren zenbatekoa ez da 1.000 eurokoa baino handiagoa izango urteko, eta kongresu zientifikoetara eta lan jardunaldietara joateko gastuak ordaintzeko erabiliko da, gastuak justifikatu ondoren.

Eskaerak aurkezteko epea hilabete batekoa izango da, agindua EHAAn argitaratzen den egunean kontatzen hasita. Eskaerak, berriz, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako Sailaren menpeko Elikagaien Kalitateko eta Industrietako zuzendari helaraziko zaizkio, helbide honetara bidalita: Donostia-San Sebastian kalea, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz.

## EKONOMIAREN GARAPENeko ETA AZPIEGITURETAKO SAILAK 2018RAKO ESTRATEGIKOTZAT ETA LEHENTASUNEZKOTZAT JO DITUEN PROIEKTUEN ZERRENDA

### 1.- PRESTATZEN ARI DIREN IKERTZAILEENTZAKO LAGUNTZAK

Iraupena: 4 urte

Zk.	PROIEKTUAREN IZENBURUA	ESKATUTAKO TITULAZIOAK	HELMUGAKO ZENTROA
1	Premia bereziak dituzten biztanleen elikadura portaerak neurtzeko metodologia sentsozial berrien garapena	Elikagaien Zientzia eta Teknologiko Gradua Soziologiako Gradua Psikologiako Gradua; Ingeniaritza eta Zientzia Agronomikoko Gradua Biologiako Gradua; Biokimikako Gradua; Kimikako Gradua; Farmaziako Gradua;	AZTI (Derio)
2	Elikagaietan hondakin kutsatzaileak detektatzeko biosentsore entzimatioren garapena	Kimikako Gradua; Biokimikako Gradua; Bioteknologiako Gradua; Elikagaien Zientzia eta Teknologiko Gradua	AZTI (Derio)
3	Towards an integrated assessment of the Bay of Biscay marine ecosystem	Biologiako Gradua; Itsas Zientzietako Gradua; Matematikako Gradua;	AZTI (Sukarrieta)
4	Neurriak eta espezieak hobeto bereizteko datu hidroakustikoak (sonarra eta ekozunda) analizatzeko metodologiaren garapena	Matematikako Gradua; Fisikako Gradua; Ingeniaritza Informatikoko Gradua; Ingeniaritza Elektronikoko Gradua; Telekomunikazioen Ingeniaritzako Gradua	AZTI (Pasaia)
5	METALGEN-Metodologia ez-inbaditzaileak prest jartzea, frisiar arrazako esnetarako behiengan mikrobiomaren, elikaduraren efizientziaren eta metano igorpenaren artean dagoen erlazioa aztertzeke.	Albaitaritzako Gradua; Biokimikako Gradua; Ingurumen Zientzietako Gradua Biologiako Gradua; Ingeniaritza eta Zientzia Agronomikoko Gradua	NEIKER (Arkauti)
6	Labore estentsiboetako eta mahastietako izurre eta gaixotasunen kontrol agroekologikoa	Ingurumen Zientzietako Gradua Biologiako Gradua; Ingeniaritza eta Zientzia Agronomikoko Gradua Ingeniaritza Agronomikoko Gradua	NEIKER (Arkauti)



7	Antibiotikoen erabileraren arrazionalizazioa espezie produktiboetan	Biologiako Gradua; Biokimikako Gradua; Bioteknologiako Gradua; Farmaziako Gradua; Albaitaritzako Gradua; Ingeniaritza eta Zientzia Agronomikoko Gradua	NEIKER (Derio)
8	Etorkizuna ziurra ez dela eta, EAEn Intsinis pinuaren produktibitatea hobetzeko baliagarria den aldaketa genetiko eta epigenetiko baliagarria	Biologiako Gradua; Biokimikako Gradua; Bioteknologiako Gradua; Genetikako Gradua; Ingeniaritza eta Zientzia Agronomikoko Gradua Basogintza Ingeniaritzako Gradua	NEIKER (Arkauti)
9	Hobekuntza Molekularreko Ereduen garapena Hobekuntza Genetikoko programa klasikoak azkartzeko	Biologiako Gradua; Biokimikako Gradua; Bioteknologiako Gradua; Genetikako Gradua; Ingeniaritza eta Zientzia Agronomikoko Gradua	NEIKER (Arkauti)
10	Hiltegiko hainbat espezieetatik datorren okelaren trazabilitatea, autentikotasuna eta kalitatea proteomika eta lipidomikako tekinen bitartez	Elikagaien Zientzia eta Teknologiko Gradua Biologiako Gradua; Biokimikako Gradua; Bioteknologiako Gradua; Farmaziako Gradua; Kimikako Gradua	EHU/UPV, Lascaray Ikerketa Zentroa (Vitoria-Gasteiz)
11	Itsasoko hondakinen balorizazioa	Bioteknologiako Gradua; Ingeniaritza Kimikoko Gradua; Industriako Ingeniaritza Kimikoko Gradua; Kimikako Gradua; Nekazaritza Ingeniaritzako Gradua; Ingurumen Zientzietako Gradua	EHU/UPV, Gipuzkoako Ingeniaritzako Eskola (Donostia)
12	AGROCOL-nekazaritzako eta industriako hondakinen balorizazioa, kolagenoan oinarritutako produktu biodegradagarriak fabrikatzeko	Bioteknologiako Gradua; Ingeniaritza Kimikoko Gradua; Industriako Ingeniaritza Kimikoko Gradua; Kimikako Gradua; Biokimikako Gradua	EHU/UPV, Gipuzkoako Ingeniaritzako Eskola (Donostia)

## 2. TEKNOLOGOEN PRESTAKUNTZARAKO LAGUNTZAK

Iraupena: 2 urte

Zk.	PROIEKTUAREN IZENBURUA	ESKATUTAKO TITULAZIOAK	HELMUGAKO ZENTROA
1	Mikroegituraren eragina Nutrizio profil hobetua duten produktuen pertzepzio sentsozialean	Elikagaien Zientzia eta Teknologiko Gradua Gastronomiako eta Sukaldaritza Tekniketako Gradua Farmaziako Gradua; Kimikako Gradua; Giza Nutrizioko eta Dietetikako Gradua;	AZTI (Derio)
2	Euskal arrantza ontziak PPC berrira egokitzearekin zerikusia duten alderdi teknologikoak, bereziki nahi ez diren harrapakinak (bazterkinak) murriztearekin lotuta	Itsas Zientzietako Gradua; Biologiako Gradua; Ingurumen Zientzietako Gradua Industri Ingeniaritza	AZTI (Sukarrieta)
3	Espezie berriak Long Linen	Itsas Zientzietako Gradua; Biologiako Gradua	AZTI (Pasaia)
4	Abereen elikadurari lotutako neurri berritzaileen ezarpena, produktuen iraunkortasuna eta kalitatea hobetzera bideratuta.	Albaitaritzako Gradua; Ingeniaritza eta Zientzia Agronomikoko Gradua Nekazaritza Ingeniaritzako Gradua; Biologiako Gradua; Ingurumen Zientzietako Gradua Biokimikako Gradua	NEIKER (Arkauti)
5	Nekazaritzako eta abeltzaintzako berotegi efektuko gasen igorpenen modelizazioa	Ingeniaritza eta Zientzia Agronomikoko Gradua Biologiako Gradua; Ingurumen Zientzietako Gradua Mendi Ingeniaritzako Gradua; Ingeniaritza Informatikoko Gradua; Matematikako Gradua;	NEIKER (Derio)
6	Barazkien gaixotasunen kontrol ekologikoa berotegietako labore intentsiboetan	Biologiako Gradua; Ingurumen Zientzietako Gradua Ingeniaritza eta Zientzia Agronomikoko Gradua Nekazaritzako Elikagaien eta Landa Ingurunearen Ingeniaritzako Gradua; Basogintzaren eta Natur Ingurunearen Ingeniaritzako Gradua; Bioteknologiako Gradua; Ingurumen Biologiako Gradua; Biokimikako Gradua	NEIKER (Derio)



7	Esnetarako behi aziendaren osasungintzaren hobekuntza	Biologiako Gradua; Biokimikako Gradua; Bioteknologiako Gradua; Farmaziako Gradua; Albaitaritzako Gradua	NEIKER (Derio)
8	Labore hidroponikoen ingurumeneko eraginaren murrizketa, ongarri organikoen erabiliz	Biologiako Gradua; Zientzia Esperimentaletako Gradua Biokimikako Gradua; Kimikako Gradua; Bioteknologiako Gradua; Elikagaien Zientzia eta Teknologiako Gradua	NEIKER (Derio)
9	Elikagai berrien diseinua eta garapena	Elikagaien Zientzia eta Teknologiako Gradua Gastronomiako eta Sukaldaritza Tekniketako Gradua	LEARTIKER (Markina)
10	Oreinaren eta beste ehiza-espezie batzuen okelaren kalitate nutrizionalaren ebaluazioa	Elikagaien Zientzia eta Teknologiako Gradua; Biologiako Gradua; Kimikako Gradua; Biokimikako Gradua; Farmaziako Gradua; Bioteknologiako Gradua; Ingeniaritza eta Zientzia Agronomikoko Gradua	EHU/UPV, Lascaray Ikerketa Zentroa (Vitoria-Gasteiz)

## Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak

### **480.000 EUROREN LAGUNTZAK NEKAZARITZAKO ELIKAGAIAK, ARRANTZAKO PRODUKTUAK ETA BASOGINTZAKOAK KANPOKO MERKATUETAN SUSTATZEKO**

- Kanpoan sustapen lanak egiten dituzten enpresak, partzuergoak eta kontseilu arautzaileak izan daitezke laguntzen onuradunak
- Gastronomiaren eta Elikaduraren Plan Estrategikoaren barruan sartzen dira (PEGA), Euskadik mundu mailan elikaduraren eta gastronomiaren erreferentziako lurralde gisa duen izaera indartzeko

Nekazaritzako produktuak, elikagaiak, arrantzako produktuak eta basogintzakoak Euskal Autonomia Erkidegotik kanpoko merkatuetan sustatzeko aurten emango diren laguntzak arautzeko Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuak eman duen Agindua onartu Eusko Jaurlaritzak, urriaren 17ko kontseilu bileran. Laguntza horiek “Lehiatu Sustapena Programa”-ren barruan jasota daude, eta 480.000 euroren laguntzak dira.

Euskadiko nekazaritzako elikagaien kate osoa eta bere kalitateko produktuak babesteko eta nazioartekoan merkatuetan sustatzeko Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako Saila garatzen ari den politikaren barruan sartzen dira laguntza hauek. Berriki onartu den Gastronomiaren eta Elikaduraren Plan Estrategikoan (PEGA) jaso da politika hori, eta planaren helburuetako bat da Euskadik nazioartean duen posizionamendua eta nabarmentasuna indartzea eta elikaduraren eta gastronomiaren alorrean erreferentziako lurraldea bihurtzea eta lurralde erakargarria kalitateko turismoarentzat.

Laguntza horien onuradunak izan daitezke egoitza soziala Euskal Autonomia Erkidegoan duten pertsona fisiko edo juridiko pribatuak, enpresak (mikroenpresak, enpresa txikiak eta ertainak, eta enpresa handiak), Euskal Autonomia Erkidegoko Kontseilu Arautzaileak eta egoitza soziala Euskal Autonomia Erkidegoan duten esportazioko partzuergoak.

### **Diruz lagundu daitezkeen ekintzak**

Une jakinetan ekintzak dituzten ekimenetarako zein sustapen programen barruan bilduta dauden ekintzetarako erabili daitezke laguntza hauek.

Diruz lagundu daitezkeen ekintzen artean daude azoketan eta zuzeneko zein alderantzizko misio komertzialetan parte hartzea edo bertaratzea, bai eta publizitate ekintzak eta promozio eta zabalkunderako materialen lanketa ere.

Onuradun bakoitzak gehienez ere bost mila euro eskuratu ditzake ekintza indibidualetarako eta 20.000 euro plan edo programa oso baterako, baldin eta planak edo programak gutxienez sei jarduera aurreikusten baditu hiru herrialdetan.

Ez da diru laguntzarik emango azoketan parte hartzeko, baldin eta azoka horietan Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko Sailak edo Merkataritza, Industria eta Nabigazioko Ganberek edo kanpoko merkatuan enpresei laguntza finantzarioa ematen duten antzeko erakundeek jarritako erakusmahaiak badaude eta euskal enpresei azoka horietan parte hartzeko tokia eskaintzen badiete. Sailaren beste programa batzuetan aurkeztu diren ekintzek ere, esaterako, GLOBAL LEHIAN programan aurkeztutakoek ezingo dute diru laguntzarik eskuratu.

Agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera aurkeztu ahal izango dira laguntza horien deialdian parte hartzeko eskaerak, eta epea hilabete batekoa izango da. Eskabide ereduak eta Kudeaketarako eta Justifikaziorako Prozeduraren Eskuliburua <http://www.euskadi.eus> webgunean egongo dira eskuragarri.

## Hezkuntza

### **200.000 EURO ZIENTZIA KONGRESUAK ETA BILERAK ANTOLATZEKO**

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, zientzia kongresuak eta bilerak antolatzeke diru-laguntzak deitzen eta arautzen dituen Agindua onartu du gaurko bileran. Ekintza hauek 2018ko lehen seihilekoan burutu beharko dira, eta diru-laguntzen onuradun izan daitezke Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sareko agente gisa kreditatutako entitateak.

200.000 euroko diru-kopurua duten laguntza hauen helburua Euskadin zientzia kongresuak eta zientzia bilerak egiten laguntzea da, oso tresna egokiak baitira ideiak eta ezagupen zientifiko eta teknologiko aurreratuak trukatu eta zabaltzeko, prestigio handiko ikertzaile eta irakasleen parte hartzea bultzatuz. Era berean, euskal zientzia esparrua ikustarazteko ere lagungarri gertatzen dira ekimen horiek.

Deialdi honetatik kanpo gelditzen dira formazio-jarduerak eta ikastaroak, hala nola formakuntza-jardunaldiak, tailerrak edo mintegiak. Deialdi honen bidez eman daitekeen laguntzaren kopurua 20.000 edo 10.000 eurokoa izango da gehienez kongresuen kasuan, nazioarteko kongresua edo estatu mailakoa den aintzat hartuta. Zientzia bileren kasuan berriz 7.500 eurokoa (nazioartekoa bada) edo 4.000 eurokoa (estatu mailakoa bada) izango da gehienez. Diruz lagunduriko jarduera hauek 2018ko urtarrilaren 1etik ekainaren 30era bitartean burutu beharko dira.

## Hezkuntza

### 500.000 EURO DONOSTIA INTERNATIONAL PHYSICS CENTERen KALKULU-POTENTZIA HANDITZEKO

Gobernu Kontseiluak gaurko bileran onartu du, Hezkuntza Sailburuaren proposamenez, Donostia International Physics Center-i (DIPC) 500.000 euroko diru-laguntza zuzena ematea. Laguntza hori bere Superkonputazio Zentroko Atlas klusterraren kalkulu potentzia areagotzeko baliatuko du DIPCek.

Atlas deritzon klusterra, HPC (High Performance Computing) edo Errendimendu Handiko Konputaziorako DIPCek duen eta Euskadin den superkonputazioko ekiporik ahaltsuena da. 2017an zehar, hala ere, egin beharreko konputazio lanen kopuruan eta bolumenean hazkunde handia izan du Atlasek, eta zenbaitetan lan horietako batzuek noiz exekutatuko zain egon behar izan dute.

Bai DIPCek eta baita Hezkuntza Sailak ere beharrezko jotzen dute Atlas klusterraren nodo kopurua handitzea, RAM memoria gaitasun handiagoa emanaz. Potentzia handitze honekin DIPCek ere handitu egin ahal izango du exekutatutako lanen kopurua, eta itxaronaldiak berriz urritu, DIPCren Superkonputazio Zentroko ekipamendu hau erabiltzen duen euskal komunitate zientifiko guztiaren mesedetan.

#### **DIPCen Superkonputazio Zentroa**

DIPCen Superkonputazio Zentroa funtsezko erreminta da DIPCeko bertako ikertzaileek nahiz inguruneko beste ikertzaile talde batzuek burutzen duten bikaintasunezko ikerketarako. Fisika eta Kimika konputazionala Euskadiko ikerketa-lerrorik sendoenetako bat da, eta DIPCen Superkonputazio Zentroa funtsezko baliabidea izan da horren garapen maila altua zergatik lortu duen ulertzeko.

Bestetik, konputazio-azpiegitura ahaltsu hau talentua erakartzeko foku bat da, bai ikertzaile bisitariarentzat eta baita egonkorrentzat ere (Ikerbasqueren bidez kontratatutak, kasu). Zentro hau, errendimendu altuko konputazioaren garapenerako apustu estrategikoa ere bada (HPC edo High Performance Computing), ez soilik erreminta gisa, baita EAEko berezko diziplina gisa ere. HPCan diharduen zentro bat, goi mailako baliabide fisikoak, teknikoak eta giza baliabideak dituen, ezagutza teknologikoaren, berrikuntzaren eta formazioaren foku bat ere bada, eta beronen eraginak eta garrantziak bere misio nagusia ere gainditu egiten du.

DIPCen Superkonputazio Zentroa lagungarri da ikertzaile kopuru zabal batek punta-puntako ikerketa lerroak gara ditzan nanoelektronikan, polimero eta materia bigunean, nanofotonikan, edo dinamika elektronikoan.

**Lana eta Justizia**

**EUSKO JAURLARITZAK 460.000 EURO INGURU XEDATUKO DITU  
EUSKADIKO 236 BAKE EPAITEGIEN FUNTZIONAMENDU GASTUAK  
DIRUZ LAGUNTZEKO**

- Diru-laguntzak udalerrien bidez banatuko dira, biztanle-kopurua aintzat hartuta zehaztuta
- Basauriko eta Langraiz Okako udalek, EAeko bi espetxe dauden udalerriek eta Zumarragako udalak, adingabeen zentro itxia dagoen udalerrriak, 1.850 euroko diru-laguntza osagarria jasoko dute
- Eusko Jaurlaritzak 1990az geroztik finantzatzen ditu Bake Epaitegiak

Gobernu-kontseiluak gaur onartu du 458.325 euroko agindu ekonomikoa, Euskadiko Bake Epaitegien funtzionamendu-gastuak ordaintzea ahalbidetuko duena. Diru-laguntzak udalerrien bidez egituratuko dira, biztanle-kopuruaren arabera banatuta. Euskal Autonomia Erkidegoan, guztira, 236 Bake Epaitegi daude:

<b>BIZTANLEAK</b>	<b>ZENBATEKOAK</b>
Biztanle 1 eta 499 bitartean	750 euro
500 eta 999 bitartean	875 euro
1.000 eta 2.999 bitartean	1.850 euro
3.000 eta 6.999 bitartean	2.650 euro
7.000 eta 19.999 bitartean	3.650 euro
20.000 eta 29.999 bitartean	4.625 euro
30.000 eta 39.999 bitartean	5.725 euro
40.000 biztanletik gora	7.425 euro

LURRALDE HISTORIKOA	Udaletxe kopurua	1-499 bizt. 750 €	500-999 bizt. 875 €	1.000-2.999 bizt./ 1.850 €	3.000-6.999 bizt./ 2.650 €	7.000-19.999 bizt./ 3.625 €	20.000-29.999 bizt./ 4.625 €	30.000-39.999 bizt./ 5.725 €	40.000 bizt. baino gehiago/ 7.425 €	Zenbat.
ARABA	49	19	10	16	3	1	-	-	-	64.175 €
BIZKAIA	105	21	17	28	16	16	3	1	3	224.700 €
GIPUZKOA	82	23	9	18	15	14	2	1	-	163.900 €
OROTARA	236	63	36	62	34	31	5	2	3	
ZENBATEKOA		47.250	31.500	114.700	90.1000	112.375	23.125	11.450	22.275	452.775

Gainera, Euskadiko bi espetxe dauden udalerriek, Basaurik eta Langraiz Okak, eta adingabeen zentro itxia dagoen udalerrriak, Zumarragak, 1.850 euro gehiago jasoko dituzte. Hala bada, honako hauek dira guztizkoak:

- Araba/Álava: 66.025 euros
- Bizkaia: 226.550 euros
- Gipuzkoa: 165.750 euros

Diru-laguntza honi atxikitako udalerriek Bake Epaitegiaren zerbitzuak eskaintzeko erabilitako bitartekoen eta instalazioen memoria esplikatiboa aurkeztu beharko dute datorren urteko lehen hiru hilabeteetan, gauzatutako gastu errealen zenbatekoak ere adierazita.

## BAKE EPAITEGIAK

Eusko Jaurlaritzak 1990az geroztik finantzatzen ditu Bake Epaitegien funtzionamendu-gastuak; izan ere, bere eskumenen artean daude Justizia-administrazioaren plangintza orokorra gauzatzea, Bake Epaitegien laguntza-programak kudeatzea eta Bake Justiziaren arloko jarduerak sustatzea.

Bake Epaitegiak dira egitura judizialaren lehen kate-begia, eta herritarrengandik hurbil daudenez, herritarren eta justiziaren arteko harremana auzotasun-harremanaren pareko izatera hel daiteke.

## Presidencia

### **EL GOBIERNO CONCEDE UNA AYUDA DE 200.000 € PARA ATENDER LAS NECESIDADES DE MENORES REFUGIADOS EN LOS CAMPOS DE ACOGIDA DE BULGARIA**

El Consejo de Gobierno ha dado luz verde a la concesión de una ayuda directa de 200.000€ a Unicef para atender a las necesidades extremas de menores migrantes o solicitantes de protección internacional que se encuentran refugiados en los campos de acogida de Bulgaria, con especial atención a los y las niñas no acompañadas. La ayuda será concedida a través de la Secretaría General de Derechos Humanos, Convivencia y Cooperación, y responde a los ejes marcados en el documento marco sobre la estrategia integral de respuesta a la crisis humanitaria que sufren las personas refugiadas, en el Mediterráneo.

Desde el comienzo del conflicto en Siria, hace 6 años, el número de personas refugiadas que llega a Bulgaria (frontera exterior de la UE) ha aumentado significativamente. A pesar de que este país no suele ser considerado un destino final, muchas personas que huyen de la violencia y del conflicto en busca de asilo permanecen durante meses, bien a la espera de decisiones sobre sus solicitudes de protección internacional, o bien ante la imposibilidad de continuar su peligroso viaje por Europa.

En este contexto, los niños y niñas constituyen un gran número de personas refugiadas y migrantes. Más de 1/3 de todas las personas solicitantes durante el pasado año, eran niños y niñas, y casi la mitad eran menores no acompañados y separados, y en consecuencia extremadamente vulnerables a la violencia y al abuso. En 2016, de los 6.444 niños y niñas, 2.768 estaban no acompañadas y separadas, y 1 de cada 5 tenía menos de 14 años.

A pesar de que Bulgaria ha mejorado el procedimiento de asilo y las condiciones de acogida, el Estado todavía no proporciona todos los servicios necesarios para las mujeres y menores. Además, los niños y las niñas viven expuestas a graves riesgos en el desplazamiento y muchas veces son víctimas de violencia física y sexual, explotación, tráfico y abuso, antes y después de su llegada a Europa. Los riesgos son mayores cuando los menores viajan no acompañados.

Ante esta situación y respondiendo al llamamiento de emergencia realizado por Unicef-Bulgaria, el Consejo de Gobierno ha decidido hoy conceder a esta organización internacional una ayuda directa de 200.000 euros que servirá para proporcionar los servicios de apoyo a niños y niñas (especialmente a los no acompañados o separados) y familias que se encuentran en 4 centros de acogida, así como la asistencia jurídica y asesoramiento a menores en relación con sus derechos.

La ayuda vasca permitirá, también, fortalecer la capacidad de las personas que trabajan para proteger los derechos de los menores.



## Gobernanza Pública y Autogobierno

### **EL GOBIERNO ABONA EL ÚLTIMO CUARTO DE LA PAGA EXTRA DE 2012 Y ZANJA, DEFINITIVAMENTE, EL CONFLICTO ABIERTO POR EL GOBIERNO ESPAÑOL HACE 5 AÑOS**

- **El Consejo de Gobierno aprueba un proyecto de ley que, una vez ratificado por el Parlamento Vasco, permitirá abonar, en la nómina del mes de noviembre, casi 50 millones de euros**
